

Santos Ezeiza Otamendi

*Tolosa,
Gipuzkoa
(1928)*

Aurkibidea

Biografia



Urkizu auzoko Urkizugainkoa baserrian jaioa. Bi bizitzakoa zen etxea: batean Santosen familia bizi zen eta bestea taberna zen. Txikitan meza-mutil izana, gogoan du apaizak meza isila nola eman zuen, ate guztiak itxita, "gorriak" Urkizura iritsi zirenean. 32 urte bete arte baserrian egin zuen lan Santosek, 23 urte bete zituenean Tolosako fabrika batean lanean hasi bazen ere.

Zintak

TOL-019

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-04-28
- **Iraupena:** 91 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Alkorta Agirrezabala, Jon

Pasarteak

1. Eskolan apaiza eta maistrarekin ikasten zuten

- **Erref:** TOL-019/008
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Urkizuko eskola non zegoen aipatzen du. Apaizak ematen zien eskola eta hark ezin zuenean, haren neskameak. Gerora, 17 urte zituela, Tolosatik etorri zen maistra eta Santos en familiaren etxean bizi zen orduan. Eskolan neskek eta mutilek denek batera ikasten zuten. Apaizak makilarekin zigortzen zituen.</p>

2. 'Xabierto' liburuarekin ikasten

- **Erref:** TOL-019/010
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:17:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

1934 inguruan hasi zen eskolan, sei urte zituela. Eskolan sartzean, aitagurea errezatu behar izaten zuten, eta Xabierto liburuaren erabiltzen zuten. Liburu hura nolakoa zen azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta zu sei bat urtekin eo hola hasiko zifan eskolan?
- Bai hola.
- Bestek'e bai?
- Bai.
- Orduntxe "treinta y cuatro" o izango zan?
- Bai, bai. Xei bat urte inguru eskolan hasita.
- Ta ze eskola klase izaten zan? Aillatu eskola ta ze in behar izaten zan eo ze?

- Eskola jun ta aurrena errezatu.

- "Aita gure" bat o?

- "Aitaren ta semeren" in ta "Aita gurea" errezatu ta geo eskolan hasi.

- Ta ordun...

- Ta beti liburu bat erabiltzen gendun.

- Ze liburu?

- Oain'e [...] 'Xabiartxo'.

- 'Xabiartxo'?

- 'Xabiartxo'. Nik 'Xabiartxo' hor nunbait ta eskola bati bestei beste baten ordeztatu eman nion. 'Xabiartxo', bai.

- Ta ze liburu zan hoi, ipuiak hola?

- 'Xabiartxo' zan liburu oso ona. Letra txiki bazeuzken, haundixogok'e bai, haundigok'e bai ta hiru klasetako "numero", letra zeuzken. Ta 'Xabiartxo'kin guk, nik ez e, danok 'Xabiartxo' ibiltzen gendun, danok 'Xabiartxo' gendun garai hartan.

- Ta zertako izaten zan?

- Eskola ikisteko, letzen ikisteko, letzen ikisteko.

- Ta zer zien ixtorik hola?

- Ez, ez, ez, ez.

- Emaztea: Bakizu zer zan? Gosia ta bista ona.

- Bai ezta? Karo, antzemango zenien.

- Bai. 'Xabiartxo' harekin, harekin ikisi gendun guk. Nik beste liburuik ez dakit, dotriña zea dotriña bai. Dotriña ikisten.

- Ta 'Xabiartxo' harek zer esplikatzun zun o ze esantun zun liburu...?

- Harek gauzak jartzen zittun, ipuiak ekartzen zittun bai. Ta geo hua letzen gendun, hua ikasten gendun, geo maistrana joaten giñen ta geo ze ikasi gendun, han letu behar izaten gendun maistran aurren, ta apaizen aurren. Apaizak maistra ezin du izan, apaizan aurren. Eo neskamen aurren letutzen gendun ahal gendun bezela.

- Ta euskeraz izango zan hori?

- Euskeraz zan dana, 'Xabiartxo'. Ez dezu behin ere aitu 'Xabiartxo'? Gure [...] eman nion hoixe ta hue. Bai honek ezautzen zun 'Xabiartxo'.

3. Eskolan, 'Xabiartxo' eta arbela

- **Erref:** TOL-019/012
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Dotrina eta Xabiartxo liburuan oinarrituta ikasi zuen. Arbela bazuten eta klarionarekin idazten zuten bertan. Materiala nola zorrozten eta berritzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- 'Xabiartxo' ordun dotriña-liburua ta izaten zenduen pizarraik-o?

- Bai, pizarra haundi batzuk, hantxe zintzilika. Hain aitzen giñan "numerok" itten ikisten, bai, han aitzen giñen.

- Tizakin o pizarroiakin?

- Ta gero mapa haundi bat'e bagendun, mapa handi bat'e bagendun. Ez [...] mapa iten, apaizak makilla luzea hartzen zun ta harekin aitzen zan eakuxten.

- Zer zan Españiko mapa?
- Bai, Españiko bai, Españiko mapa haundie zan, haundie zan mapa.
- Ikasten zenittuen Espāñiako probintzik-eta?
- Bai, bai. Batzuk ikisi, baiño oain ahaztu in zait.
- Baiño saiatze zea behintzat?
- Bai, bai, bai. Ahaztu in zaixkiu, baiño ordun pixka bat ikisi gendun, bai.
- Ta pizarra hoitan idazteko, pizarroia izaten zenuen eo?
- Klarionakin.
- Klariona?
- Klariona zurikin. Klarionak bazien, barra luzek bazien ordun'e bai bazien, ta klarionakin haikin pizarran aitzen giñen eskribitzen.
- Ta haik apaizak beak jartzen zitun eo zuek eosi ber?
- Beak ez, beanak, beak jartzen zittun haik. Haitxek merkek izango zian nunbait-eta, ordun ez zan diruik-eta.
- Besteik ez zenuen izango, hola estutxek eo kartapaziok eta oain dauden motxilak-eta?
- Ez, ez, ez. Ez gendun holakoik.
- Lapitzik ez?
- Lapitzak bagiñuzen bai, lapitzak haitxek, baiño beste boligrafo zea tintakoik ez zan. Lapitzakin aitzen giñan danok.
- Lumaik ez?
- Ez, ez, ez.
- Ta kuadernoa eo zeoze bazenuen ordun?
- Kuadernoa bai ekartzen zigun, baiño lapitzakin beti aitzen giñan gu e, beti lapitzakin, beti muturra itteko katxarroik ez gendun, ta kutxillokin in muturra ta segi. Muturra kutxillokin itten gendun, geo sortu zien lapitzen zeak muturra itteko hoik. Geo kutxillokin zorrozten gendun, pixkat muturra in ta harekin aitzen giñen.
- Zeuek ekarritako kutxilloa eo beak jartzen zun apaizak?
- Han izaten zan baten bat bai, baten bat apaizak jarritakoak izaten zien. Bai, kutxilloakin muturra itten. Geo sortu zan muturra itteko hoi.
- Ta borragomak ta bazenuten?
- Bai, hoi bagiñuzen, borragoma bagiñuzen, bai gorri batzuk ta hoi goatzen naiz oaindikan nola ibiltzen giñun, bai.
- Nahiko lan ordun zuek eskribitzen ta ikasten?
- Bai, halaxe ibili giñen bai.

4. Zine mutua eskolan

- **Erref:** TOL-019/013
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:23:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Apaizak ematen zituen eskolak Urkizun. Apaiz haietako batek, don Felizianok, zine mutua jartzen zien, hartarako proiektagailua baitzeukan; oso pozik egoten ziren hari begira eta zer film klase ikusten zuten aipatzen du. Igandetan ere izaten zen zinea eskolan.

Transkripzioa

- Apaiza zer zan bullosoa hola o bronka botatzekua-o?

- Apaiza, bat don Feliziano Andoaíñea jun zan. Azkoitiko zan. Ni txikia nitzala hua ona zan, harek harek jartzen ziun umeei, umeei umeei gustoa itteko izaten zun harek. Ta hitz itten ez zun zinea jartzen ziun. Hitz eiten ez zuna e! Zinea bazeukan. Jartzen ziun batzutan, jontxo ez ziun beti jartzen, argiya [...] itten zun ta. Ta hitz itten zuna jartzen ziun. Ta gu hari beida erotzen eoten giñan, ez zun hitz eiten e! Irudi gabe ikusten zien.

- Zer zun proiektore bat?

- Ikusi. Bai. Makina bazun don Felizianok nunbaitetik ekarrita. Ta ez zun hitz eitten e, baiño gaurko eunen telebisio baiño gustoago hari beida mutil koxkorretan ze gustoa eoten giñan.

- Ze pelikula klase zian?

- Ez dakit ze pelikula izango zien. Astua larren igual izango zien eo holakoxe batzuk igual ta geo beste pelikulaik bat ere ez, holakoxiok. Jesukristonak, zea Judasenak-eta hoi botatzen zittun. Jesukriston jaiotzak ta hoik botatzen zittun, Judas ta hoik botatzen zittun ta gu umek hairi beida harritzen eoten giñen. Ze gustoa eoten giñen gaiñea.

- Paretan nola jartzen zitun pertsonak muitzen-ta?

- Aparatua bazuen, nunbaitte. Oain'e elizan jartzen dittue paretan'e kantak eta San Franziskon'e bat'e zea jarri gabe. Paretan jartzen digue. Aparatu horrekin botata pareta txuritu ta.

- Gu ez gea harritzen, baiño gu oain ez gea harritzen baiño garaiko umiak joe esango ber zenduen joe esan behar zenuen "zer da hoi?", o sea magia iruituko zitzaizuen zuei?

- Bai, bai, bai; hala iruitzen zitzaian, baiña gustoa eoten giñan hari beida. Geo igandetana'e botatzen ziun. Gu hantxe igandetana iñoa ez giñen juten gu ta igandetana'e bai botatzen ziuen eskolan don Felizianok, zine hoi; zine hitz eitten ez zun hoi, mutue. Baiño irudi haiei beida gu erotzen eoten giñen. Egia esango dizut, hoik hala die ta.

- Ta don Feliziano hua aizkoitiarra zan?

- Azkoitiarra zan, ta geo Andoaíñea jun zan. Bai, gue amai asko laundu zion gue aitta hil zen garaian paperak itten ta harek asko laundu zion don Felizianok. Oso gizon ona zan. Ta han nexkame Urkizuazpikoa zun, Kontxixi Iraola.

- Ta zuen alden harek euskeraz diferente hitz eingo zun ba?

- Ez zazula uste, euskeraz urte batzuk. Bueno, urte asko pasako zittun Urkizun'e bai. Gehienez'e Urkizun apaizak lau urte asko ez zittun pasatzen, ya lau bat urte pasa ta berrie etortzen zan jeneralmente.

- Ze nahiao izaten zuen alde in beste tokin batea?

- Bai, destinatu iten zuen nunbait, ta geo berria ekartzen zuen, lau-bost bat urte apaiza eoten zan.

5. Urkizun izandako apaizak

- **Erref:** TOL-019/015
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:23:32. **Bukatu:** 00:24:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Urkizun apaizak ematen zituen eskolak; berak ezagututako apaizen izenak aipatzen ditu.

6. Urkizuko tabernako anekdotak

- **Erref:** TOL-019/016
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:24:38. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Urkizun taberna zegoen lehen ere. Taberna beraien etxearen ondoan zegoen, eta gerra garaian norbaitek zuloa egin zion ateari daratuluarekin. Tabernako jabeak tabernari onak ziren. 18 urtera arte beraiek ez ziren tabernara joaten, helduei ez baitzitzaien gustatzen. Gerora, beti botilako ardoa edaten zuten; ardo hura garrafoikoa izaten zen eta konturatzen ziren.

7. Urkizuko frontoia eta pilotariak

- **Erref:** TOL-019/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:29:51. **Bukatu:** 00:31:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Lehen Urkizun frontoia non zegoen azaltzen du. Lehen baziren pilotari onak Urkizun eta haien izenak aipatzen ditu.

8. Gaztetako planak: gaztainak jan eta dantza egin

- **Erref:** TOL-019/019
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:31:49. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztaina garaian gaztaina erreak jaten zituzten eta sagardoa edaten zuten. Borda batean elkartzen ziren egun haietan, gizonak bakarrik. Lehen emakume dotoreak ziren Urkizun. Batzuetan soinua eramaten zuten Urkizuko plazara emakumeekin dantza egiteko. Soinua ordaintzeko dirua ateratzeko, txapela pasatzen zuten.

9. Prozesioetako ohiturak

- **Erref:** TOL-019/022
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:38:09. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Urkizutik inauterietan eta Aste Santuan jaitsi ohi ziren Tolosara. Lehen Ostegun Santuan denak kandelarekin irteten ziren; arropa onena janzen zuten egun haietarako. Prozesioa nondik nora zihoan azaltzen du; gizonak aurretik eta emakumeak atzetik joaten ziren.

10. Aste Santuko tiroa

- **Erref:** TOL-019/024
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:40:33. **Bukatu:** 00:42:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

San Isidroetan prozesioa egiten zen. Behin Aste Santuko egun batean, Santa Maria elizaren aurrean jende asko zain zegoen eta han bi guardia zibil zeuden; haietako batek eskopeta kargatuta zeukanez, tiroa bota zuen nahigabe sabaira.

11. Tolosako inauterietako ohiturak

- **Erref:** TOL-019/025
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:42:28. **Bukatu:** 00:45:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Tolosako inauterietan lehen ez zuten izaten dirurik txilaba erosteko; orduan, mozorroa prestatzeko nola moldatzen ziren azaltzen du Santosek. Gerraostean inauteriak galarazita egon arren, Tolosak eutsi egin zion ohiturari.

12. Tolosako inauterietako giroa

- **Erref:** TOL-019/027
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:45:37. **Bukatu:** 00:47:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Inauteriak egun handiak izaten ziren. Kaleetako giroa nolakoa izaten zen azaltzen du. Inguruko herrietatik ere etortzen zen jendea Tolosara.

Transkripzioa

- Eun handik izango zian Karnabaletakok zuetzako ere?
- Bai, bueno. Bai, Karnabalak beti gustokok izan izandu dittu gaztek.
- Izaten zan ordun txaranga ta zea ta oain bezela, musika kalia?

- Bai, bai, bai; hoiek izaten zien; bai, bai, bai. Ya oaingo posturan, ez noski oain bezelako elegantek, jantzita musikakok, baiño eltze zaharreakin eo platerakin musika izaten zan, jotzen zuen musika. Ta gu, gu goatzen naiz ni xexenetatik atea ta nik orduen hemezortzi bat urte, hamasei urte izango nittun ta danborrada aurrean jartzen zan ta atzetik dantzari ta korron aurrea ta atzea ta aurrea ibiltzen giñen sekulako festa gusto asko ibiltzen giñen, aurreko zeai musikai seituz; bai, bai.

- Inguruko herritakok juten zian o Tolosan tolosarrak izaten zian gehienbat?

- Izaten zan jendea, jende asko juten zan Tolosa ordun e.

- Ibarrik?

- Bai, bai, Ibarra ta Andoaindikan'e bai. Ta Villabona aldetik ta Tolosa jende asko etortzen zan ordun; bai, bai, bai. Tolosan karnabalatan beti izan da jendea, beti; bai, bai. Hoi nik bezela beste batek esango dizu, Tolosan beti jendea asko izan dala karnabaletan.

- Festako eun aproposa ordun?

- Bai, bai.

- Andregai billatzeko're ta ordun jendia saiatuko zan?

- Ordun kostatzen zan, kostatzea hoi itia baiño behintzat.

13. Mezalagun izan zeneko zereginak

- **Erref:** TOL-019/029
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:47:42. **Bukatu:** 00:49:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Santos mezalaguna izan zen eta zer zeregin izaten zituen aipatzen du: apaizari liburua eman, ur-ardo ontziak atera, limosna bildu...

14. Apaizaren meza isila

- **Erref:** TOL-019/030
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:49:08. **Bukatu:** 00:50:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gerra etorri zenean, apaizaren meza isila ezagutu zuen Santosek; izan ere, apaizari desafioa egin zioten meza eman ez gero hil egingo zutela esanez.

Transkripzioa

- Ta geo eun baten gerra denboa etorri zan, gerra etorri zan ta hemen bazien ba gorrik eta naparrak ta erlijiosok gorri xamarrak bazien nonbait eta apaizak nonbait desapiua in zien. Meza ematen harrapatzen bazaittu hil ingo zaittu, desapiua nonbait in zien ta apaiza ni jun nintzen beti bezela monagillo apaizai meza launtzea ta ta apaiza han zeon zai ta ni sartu nintzen garaian atea "ra" itxi ta meza ixilik eman gendun. Meza ixilik, geo zintzarriya jotzen gendun; oain ez da jotzen, baiño ordun zintzarria jotzen gendun meza erdiko garaian ta zintzarria jotzen gendun, ta bai mezako

garaien ta geo santu denboran'e baita hiru bat aldiz mezan jotzen gendun zintzarria fuerte jotzen gendun ta apaizak esan ziun: "zintzarria ez jo, zintzarria gabe meza ixila eman behar deu". Ta iñor ez zan apaizan neskamea segurasko izango zan atze-atzen, iñor ez zan besteik. Ta meza ixil-ixillik eman ta martxa! geo eskola, etxea jun ta [...] inda, ematen baldin baziun oillaskoa, bai.

15. Gerrako oroitzapenak

- **Erref:** TOL-019/031
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:50:17. **Bukatu:** 00:51:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Gerra hasi aurretik, esaten zen gerra zetorrela. Borroka non izan zen aipatzen du. Munizioa astoekin ekartzen zuten garai hartan. "Pakun!" zen tiro-hotsa.

16. Soldaduak etxean lotan

- **Erref:** TOL-019/032
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:51:46. **Bukatu:** 00:55:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra hasieran, nafarrak etorri ziren eta batzuek Santosen familiaren etxean egin zuten lo lasto gainean; etxekoak beldur ziren etxeak ez ote zuen su hartuko. Soldaduek baserritik presaka egin zuten alde eta bertan utzi zituzten arma pila bat eta aurreko egunean ostutako oilaskoak. Hori ikusita, Santosen familiak inguruko etxeetan banatu zituzten oilaskoak.

17. Arreba gorteiatu zuen soldadua

- **Erref:** TOL-019/033
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:55:04. **Bukatu:** 00:56:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Soldaduak hiru aste inguru egon ziren Urkizun, Tolosa hartu aurretik. Soldaduetako batek Santosen arreba bat gorteiatu zuen, baina arrebak ezetz esan zion, moja sartu nahi baitzuen.

18. Aitonaren anekdotak

- **Erref:** TOL-019/035
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:59:11. **Bukatu:** 01:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Santosen amona bi aldiz ezkondu zen. Bigarren senarra baserriko morroia zen; gizon parrandazalea zen hura eta soldaduekin izandako anekdotak kontatzen ditu.</p>

Transkripzioa

- Gue aittona zana parranderua izan behar zun. Gure amonak bi gizon zittun, aurreneko gizona hil ein zitzaion. Aurreneko gizonana nere aitta, aurreneko gizonana hemen zan nere aitta ta geo ezkondu zan etxean, orduan baserrin lana in behar izaten baitzan. Ta ordun lana itteko indarra behar izaten zan ta morroie zun hartua etxen, aittan partez morroia. Aittona edadekua pixkat hua eta aittona're bai. Aittona morroian, morroia aittona, gure aittona zan morroi zeona ta geo morroiakin ezkondu zan, gue aittonakin ezkondu zan amona. Lana itteko ordun behar baitzan baserrin, aitta hil zitzaion gu zortzi ume giñun txikik ta lana itteko baten bat behar zan ta aittonakin beste gizona hartu zun, biarrena Juan Angel Arsuaga hartu zun. Alkizako Saletxekoa zan. Ta juergista, etxen aitzian langillea zan baiño kalea, honea etorritz geo galdu itten zan, atxurtu-eta itten zun-ta. Ta beti beandu, beti gauen beandu. Ta ordun ba ixpik ba omen zien ba, ixpik ordun ixpik esaten zien. Ixpik Guardia Zibillek bezela ixpik, azpitik lana iten zuenak, entenditzen dezu? Ta gue aittona beti beandu ta eun baten harrapatu omen zuen behetik gora ta gure aittona ta: "E zu, nola zabiltza hemen?" ta "ni peritik etxea". Ta nonbait, euskeraz, erderaz ne modun jakingo zun harek ta "peritik etxea" ta hasi zitzaion galdezka ixpi soldaduk eo galdezka hasi zitzaizkion ta "zu ze opiniotakoa zea?" ta aurrena bai. "Ni, ni ze opiniotakoa? Ni, ni karlista, oain karlista". Hemen ematen omen zue insiñia ordun, gerra denboan. "Ni jaiotzetik karlista, oain karlista, [...] bai lista". Hoi erakutsi omen zun gue aittonak. Karlista esan zun. Geo haik. Geo han berriz'e pixka bat harrapatu ein omen zuen, handikan pixkatea berriz'e harrapatu ta apaizena ordun eman omen zuen. Ordun, apaizak gehien alkateak agintzen zun garai hartan apaizak-eta. Apaizena ta apaizena eman omen zuen gure aitton hoi ta beti eztulka eoten zan, eztul asko itten zun harek. Erre itten zun, pixkat eztula; erre´re txarra iten zun: artobizarrak-eta takoik eta ez zan garai hartan. Ta apaizena eman omen zun ta: "Hau ze, hau hola ta hola ta gora ta hau gizona ze gizon da?" Apaizak esan omen zion: "Hau gizon on puxkea da". Ta: "Zuk ze izen, ze apellidu dittuzu?" ta beti eztulka tipo hoietako bat izan ber omen zun ta Fernando modukoa hala izan ber zun gue aittona, odoletik ez gea ezer, baiño tipo hoietakoa izan behar zun. "Ze apellidu dituzu?" apaizen aurren ta: "Ni Juan Angel Arsuaga Tapia" "aja", beti eztulka eoten zalako, laugarren eztula. Hoi ixtoria!

19. Gerraostean ere 'Xabiartxo' liburua

- **Erref:** TOL-019/038

- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:10:28. **Bukatu:** 01:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Gerraostean, eskolako sistema aldatu zen: euskara kendu eta erdaraz eman behar izaten zuten eskola, nahiz eta erdaraz ia ez jakin. Hala ere, Xabiertxo liburua erabiltzen zuten baita gerra ostean ere.

Transkripzioa

- Zu gerrak mutil koskorretan harrapatu zintun.
- Bai, nik bederatzi urte, zortzi-bederatzi urte.
- Ta oaindik eskolan?
- Bai, eskolan, alegiya.
- Ta kanbiatu zan eskola ordun?
- Bai, ordun eskola beti euskeraz itten gendun, beti euskeraz zan eskola beti. Gero zorioneko Franco hoi, hoi jarri zan Franco ta fuera euskera e ta eun batetik bestea euskera kendu in ziun. Ta erderaz guk tutik ez genekiun erderaz ta errezatu erderaz itten zuen, errezatu erderaz itten zuen apaizak eta maestra neskamea zan. Ta hala legea eman zien ta eun batetik beste dana erderaz. Ta guk hala euskeraz itten gendun pixkat pixkat, zeatik hitz ein behintzat guk euskeraz beti hitz eiten gendun, nola erderaz ez genion tutik ez genekiun ta.
- Ta apaiza euskalduna izango zan ba?
- Apaizak erderaz ta euskeraz bita, ondo itten zuna. Apaiza estudiokoa izaten da ta, hoi bita ondo ingo zun harek.
- Ta eun batetik bestea danoi euskeraz itten zizuenak oain erderaz?
- Bai, bai. Beti euskeraz. Eun batetik bestea legea etorri zitzaien, ta hemendik aurea erderaz etorri alegia Franco ta erderaz hitz ein berko da, erderaz in berko da ta euskeraz aitzen giñen, zeatiken ez gendun, ez genion dena obeditzen. Baiño beak, beak legea ekarri ziun erderaz baiño nola guk euskeraz, erderaz bat ere ez genekiun-ta, baiño erderaz hitz eitteko elizan zeozar errezatu edo erderaz zeoze ingo zun baiño gaiñontzekoa euskeraz iten genun.
- Beak klasea euskeraz ematen zizuen?
- Bai, bai; euskeraz iten zan, nola ba erderaz? Euskerazko liburuk danak giñuzen-ta: 'Xabiertxo' esan dizut ba! Beste liburuik ez zan azaltzen han. Ordun, Francok nik ez dakit, Francoren, ordun diruik ez zun harek izango ta eskola erderaz euskeraz ta erderaz eman ber ta erderazko liburuik ez zuen ekarri.
- Legea bai baiño...
- Hitz ein ta euskeraz itteko erderaz itteko, baiño erderazko liburu bat ez zuen ekarri. 'Xabiertxo' goitik ta 'Xabiertxo' behetik.
- Ta hua erderaz ezin letu.
- Hua euskeraz, ta gu 'Xabiertxo'kin ibiltzen giñen. Geo hola izan zan, baiño beti euskeraz eutsi genion ta.
- Ordun apaizak uzten zizuen'e bai?
- Bai, bai, uzten ziun; bai, bai, euskeraz hoixe uzten ziula beharko gaiñea! Ez, ez; ez ziun ematen, ez ziun ematen. Bertakok zien ta.
- Batzuk kastiguak ematen zituen?
- Bai, baiño ez, ez, guri ez.

20. Gerraosteko janaria

- **Erref:** TOL-019/040
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:17:56. **Bukatu:** 01:19:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostea gogorra izan zen: gosea etorri zen; olio oso garestia zen; esnea erabiltzen zuten janaria gozatzeko; txerriaren seboa okasio berezietarako gordetzen zuten... Seboa non gordetzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Ta handik aurea, gerra ondorena gogorra izango zan ba?
- Bai, gosea. Orduan, gosea galanta ordun, ordun oliyoa, litro oliyoa hogei duro ta langilleak irabaziko zittun hamar duro, aste guztia pasata? Ta litro, litro oliyoa hogei duro patzen zun gue amak, baiño oliyoa eosten zun baiño oliyoa, ttantto bat. Ta geo, oliyoik prezio hartan eosteik ez zeon ta esneikin patatak ta jartzen giñuzen. Patatak ta aza're bai. Honek lehenozurik ta hau bota ta patatak zuri-zuri. Azak'e zuri-zuri. Jan itten gendun, hoi egiye da e, esneakin bustitzen gendun.
- Ta txerriyan sebua're erabiliko zenuen hortako?
- Txerria erabiltzen gendun. Baiño txerrin seboa, jesus, pixkana, iñor iñor etortzen baldin bazan ta. Gordeta eoten zan. Baiño esnekin.
- Nun gordetzen zenuen bestela sebua botillatan o?
- Bai.
- Emaztea: Ez, maskurin.
- Hoi zea maxkuriya bai. Txerrik maxkuriya izaten du, puztutzen gendun [...] erdin ta geo harea botatzen gendun txerrian grasa harea botatzen gendun, gantzak-eta. Bero-bero daola harea botatzen gendun ta geo hue maskuriko hazi [...] hue hola hazi zan ta han eukitzen gendun. Geo, gogortzen zan garaien kutxarekin ateatzen gendun, zuloa in ta gor-gor eoten zan-ta.

21. Janaria kontserbatzeko moduak

- **Erref:** TOL-019/041
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 01:19:43. **Bukatu:** 01:21:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Janaria kontserbatzeko zer egiten zuten azaltzen du: goitegiak erabiltzen zituzten, jeneroa gazitu egiten zuten, piper gorriekin igurzten zuten janaria...

Transkripzioa

- Ta gaiñontzen, beste aprobatzeko ez zan izango janaria kontserbatzeko frigorifikok eta zea?
- Ez, ezer ez.
- Nola iten zan ordun?
- Ordun? Prexkeran. Prexkera. Leihon aurren jarri jartzen zien, zea ospel

aldetik euzkik sartzen ez zun tokin jartzen zan sarea eo ta elbi sartua gabe. Sarea estu-estue, sare ixtu-ixtua jartzen zitzaion buelta guztin. Ta elbik ez zan sartzen, baiño haizea sartu itten zitzaion. Ta huaxe zan prexkera, garai bateko konjeladorek eta neberak haiexek zien.

- Ta bestela gatzetan eukitzen zien gauzak o?

- Bai, txerrikiya. Txerrikiya gazitu iten zan e.

- Dana? Urdaia...

- Bai, bai. Gazi kutxen. Gazi kutxen sartzen zan ta gatza bota, azpin'e bai. Geo txerri puskatzen zan garaien txerri gaiñen jartzen zitzaion, berriz gatza bota. Gaiñen beste hiru beste harri haundi bat eo bi jartzen zitzaizkien, harri gaiñen. Zeai. Ordun gauzak merke izaten zien, diru ez zan-ta! Gatza bota ta harri haundi batzuk txerriri gaiñen gatzi kutxen. Ta gor-gor eoten zien, gatza bueno harrikin zapalduta gaztuta. Hala eukitzen zien ba hillabete pare baten eo, gatzetan. Geo atea, gatza guztia garbittu ahal dan ondona garbittu ta pipar gorriakin dana igurtzi ta ganbaran zintzilik jartzen zien, ganbaran. Ta elbik ez zuen jaten gatza, gazia eoten baitzan.

- Ta piper gorriakin zeatik igurtzitzen zian ba?

- Elbik ez sartzeagatik.

- Elbik gutxio jaten zuen piper gorriakin emanda?

- Emakumea: Nik ez dakit horreatik zan ba.

- Bai. Pipar gorrie hautsa zan. Ta gorri-gorri geatzen zan ta elbik ez zian etortzen. Gor-gor eoten zan. Eskerrak hari.

22. Llanos fabrikan lanean

- **Erref:** TOL-019/044
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:24:58. **Bukatu:** 01:25:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

32 urtera arte baserrian egin zuen lan Santosek. 23 urte zituela Llanos fabrikan hasi zen lanean. 1953ko uholdeak, ordea, kalte handiak eragin zituen hango makinerian.

23. Paper-fabrikan lanean hasteko egindakoak

- **Erref:** TOL-019/045
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:25:59. **Bukatu:** 01:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Tolosaldeko lantegiak

Laburpena:

Uranga paper-fabrikan aritu zen lanean 41 urtez eta handik hartu zuen erretiroa. Lan hura nola lortu zuen kontatzen du. Lanera hasieran bizikletaz joaten zen, baina gerora motorra erosi zuen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com